# GARAPEN EKONOMIKOA ETA TURISMO

| GARAPENA - TURISMO | | | |
|---|---|---|---|
| **GAIA** | **EGINDA** | **MARTXAN** | **EGITEKO** |
| Atxorrotz eta herriko ondarea zaindu eta indartu | • Gizarteratze kanpaina egin da. | | • Tumuluak eta herriko ondarea berreskuratu. |
| Museoak potentziatu | • Udan hainbat bisita gidatu antolatu dira. | | • Jendea erakartzeko bideak aurkitu behar dira.<br>• Museoko ordutegia egokitu behar da bisita kopurua gehitzeko. |
| Elizateak eta bere inguruak gerturatu eta ezagutarazi | • Informazio herriratu da elizateekin eta bere inguruko ondareekin. | • Mendi ibilbideak markatzeko proiektua martxan dago. | |
| Turismoa ekarri herrira | • Mankomunitatean kanpainak egin dira elkarlanean.<br>• Udan bisita gidatuak egin dira herrian, eta mapak atera eta turismoarekin lotutako inguruko lekuetara banatu dira.<br>• Lantaldea sortu da Gatzagarekin elkarlana egiteko.<br>• Herrian autokarabana gune bat jartzeko prozesu parte-hartzailea egin da. | | |

| GARAPENA – ECONOMIA | | | |
|---|---|---|---|
| **GAIA** | **EGINDA** | **MARTXAN** | **EGITEKO** |
| Azoka indartu | • Tokiz aldatu da, kokapen egokiagoa eman guran. | | Herriko saltzaile gehiago egotea lortu behar dugu. |
| Komertzioa eta merkataritza | • Axtrokien kanpaina egin da tokiko garapena indartzeko,<br>• Axtroki Merkatari Elkartea sortu da, eta urtero diru kantitate bat inbertitzen da laguntzeko. 2014. urtean, adibidez, 5.500€ inbertitu dira. | | • Herriko komertzio asko oraindik ez dira Merkatari Elkarteko kide egin. Norabide horretan lan egin beharra dago. |
| Landaguneko ekonomia | | • Azken bi urte hauetan, Mankomunitateko Garapen | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Agentziarekin batera, bailarako lur bankua sortzen gabiltza, lurra behar duten herritarrei lur egokiak eskaini ahal izateko. 2015erako bukatzea espero da | |
| Ekintzailetasuna indartu, eta enpresa berriak sortzeko erraztasunak eman | • Udal jabetzako lokal batzuk alokairuan jarri dira,<br>• Hobari fiskal berriak eman dira obra eta jarduera lizentzietan,<br>• Hobari fiskalak eman dira jarduera ekonomikoaren gaineko zergan (JEZ), | | • Oraindik hainbat udal lokal daude alokairura bideratu ahal izateko moduan.<br>• Ekintzaileek elkarlanean aritzeko gune bat sortzea falta da. |
| Langabetuei laguntza | • Langabetuei Euskaltegian euskara doan ikasteko aukera eman zaie<br>• Herriko hainbat langabe kontratatu dira udalean lan egiteko: brigadarako hainbat langile,  administrari bat eta IKT arduradun bat. | | |